


17. Imanol Mujika Alberdi 1921*-2007, bergarra


Komunikazioaren egilea: Iosu Urrexola

17.1. Bizitza

Imanol Mujika Alberdi Bergaran jaio zen. Bere familiarekin ez dugu harremanetan jartzetik lortu eta ez dugu daturik. Irakaslea izan omen zen eta urte askotan Hegoamerikan.



13.7. Argitalpenak



Argitaratutako liburuak

- *Iainkoa: Sabiduría de la Naturaleza, memoria, ADN ISBN 84-300-0010-0*
- *Euzko Elea Etorburuko Esan Naia*
- *Linguistica Baska*
- *Ciencia y Filosofía*
- *Teoría de la Formación de las Lenguas Vista a la Luz del Euzkera.*

Horrez gain, etikaz, genetikaz, gizakiaz eta hainbat gairi buruzko 100 artikulua baino gehiago idatzi zituen.

- Euskeraren Jatorria: 1. Biltzarreko ponentzia: [Imanolen ikerketa bere aotsan, duela urte batzuk](#)
- 2. Biltzarreko ponentzia: [Linguistika Baska, Jainkoa Sabiduría de la Naturaleza](#)

- Europa Indigenak egindako laburpena: [ADN del euskera los-sonidos de la naturaleza/](#)

13.7. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

Imanol Mujikaren IAINKOA liburuaren laburpena.

a) Lautaroa

Gizakiaren lau osagai garrantzitsuenak, hauek dira:

- gorputz fisikoarena, hau da hiru neurrietako tresna materiala
- bizipozarena, errekin edo energia duen gorputz fisiko horrek
- sentikortasunarena, pertsonak duen emozio kargaz osatua
- kontziente izatearena, ideia eta pentsamendu baliagarriak lantzea

Eta gainera mintzaren dohaina dugu, arrazoi eta zuhertasunean oinarritua, hau da, naturaren esangura guztiak errepikatzeke gai izan behar duena: antzekotzaren erabilpena.

Baina, esangura horiek (antzekotsa horien errepikapenak) ez dute indarririk izango, ez ba daude pentsamendu baterio lotuta eta irudi batean oinarrituta.

b) Ikurra

Europa iparrean 15.000 urte zeramaten kromañoen zuri herriekin nahastuko ziren Asiatic datozen herriek azken izotz aroan eta euskaldunok, nahasketa hortik ateratzen dan talde bat besterik ez gara.

Euskaldunak eta European dauden beste etnia batzuek, gordetzen dute orduko ondare genetikoa bai odolean eta bai memorian. Naturaren memoria noski.

Esan beharra dago, memoria eta iragana ez duenak, ez du orain aldirik, ez etorkizunik ere. Naturaren memoriaz, genetikaren bitartez pilatu eta berritu egiten danarekin belaunaldi bakoitzean, eta gordetzen jakin behar dana.

Lege natura hori jarraitu ez gero, ez zen arraza arazorik izango, bakoitza dan eta izan behar dena izan balitz. Arrazakeria, arazo politiko hutsa besterik ez da, arrazen desagertpenaren aldekoak sortutakoa. Bai estadiuek, bai erlijioek, gizakia artalde erraldoi bat bihurtzea besterik ez dute nahi, hortik arrazakeria.

c) Irudien zer esana

Euskaldunon irudi ezagunena lauburu da. Baita beste herri askotakoa ere. Aspalditik lauburuaren esan nahia dakigu, naturaren indar eta energia kosmikoaren kokapena, baikor edo ezkorra izango da nola jarrita dagoen eskubi edo ezkertera.

Eguzkiarekin lotura zuzena du. Y

Irudi mundu batean bizi gara eta gizakia energia guztien ordezkaria da.

Irudien balioa, ordezkatzeko duen balioarena da, eskuratu duguna ipuin eta elezaharren bitartez aspalditik.

d) Hitza

Lehenengo hizkuntzak, erro propioak izan zituztenak, natura bibrazioaren soinuak hitz bihurtu zituztenak dira.

Bibrazio ohiek, naturaren goiko legetik sortutakoak, gizakiak itzuli eta bereganatzen ditu, ahoskatzeko.

Antzin garaiko hizkuntzak, berezko sustriak dituztenak, soinu oinarriak dituzte. Hitza soinua da. Horregatik bibrazio naturaletan aurkitu behar dugu euskeraren sorrera.

Lehena IZENA da. Argitik edo energiatik (Iz) datorrena, naturaren indar magnetikoak ahoskatzeko gaitasuna. Ulertu eta egunerokotasunean erabiltzeak, euskaldunok hizkuntza bat bihurtu duguna. Horregatik esaten dugu euskera zientzia bat dala, lege naturaletik sortua dalako. Eta oso ondo

adierazten duelako naturaren indar eta ikuskera hitzen bitartez.

Antzekotzak idazterakoan, badirela izki ezberdinen interpretazioak eta kontsonanteen zerrendan, adibidez, bi esan nahikoak (R, RR, M), jarduerakoak (Z, S, B, P, F), jarduera gabekoak (N, L, LL), haunditasunaz (G, K, Tz, Ts) txikitasunaz (T, D, X, Tx, Ñ) lotutakoak ba direla.

Kontsonanteak materialak dira, eta antzekotz fisikoekin lotuta daude.

Aldiz, bokalak ez materialak dira:

(A, E, jarduerarekin)

(O, U, sentikorrarekin)

(I, aditasunarekin) eta nortasunarekin lotuta daude.

(H)hizki xuhurtua, soin barreneko soinu bat da, atzetik bokal bat datorrelaren arreta, horrek esan nahi du eduki bat duela.

Baina, euskaraz idatzitako hizki guztiak ahoskatu egiten dira, beraz, ez du zentzurik (H)ak jartzea han eta hemen, bokalean artean, ez ba dira ahoskatu behar.

Beste modu batera esanda, euskeran ahoskatze bakoitzak hizki bat behar du.

e) Jainkoak

Jaun goikoa izena asmakizun petral bat da.

Hasierako eta benetako izena lainkoa da eta lainkoa izena iakinduriari lotuta dago. lainkoa dena dakiena da, lege natural guztien jartzailea eta perfekzioa osoa gordetzen duena. Bateragunea da.

Baina gizakiak gaizki ulertu du erlazio hori, lainkoa eta iakintasuna, eta lainkoa giza irudi moduan ikusi dugu, bere behartasun materialekin, otoi bila, aurpegi, beso eta begiekin eta gure betebeharren tresna eta konplizea izatea, bihurtu nahi izan dugu.

Gizarteak, lainkoak sortu ditu bere neurrira, ulertu nahi ez dituen lege eta arazoei sentzu bat emateko, erlijio askotan ikusten dan bezala. (kábala, kristau edo musulman, bere profeta, aditu eta jakintsuekin)

Bateragunea zatitu egin dugu, neurrietan jarri, dimentsio materiala eman.

f) Morala ea Etika

Ume txikiak oso egoistak dira, beretzat ona dana, ona da. Edo taldeek, ona dana beraientzat onartzen dute eta beraientzako kaltegarria bada atzera botatzen dute eta hori moralaren pentsamendua da. Aldiz, ikasteko griña, gauzak ondo egitea edo besteak errespetatzea, pentsamendu etikoa da.

Beraz, etikoa dana naturatik dator eta morala pertsonetatik dator.

Etika erabiltzen dutenek, kontzienteak, zintzoak eta unibertsalak izango dira, pertsonak eta herriak.

Aldiz, beraien morala aplikatuz dabiltzanak, egoistak, burruka zale eta asegabeak izango dira. Erlijioa, morala, politika eta ekonomiak, taldeen interesak defendatzen dute eta zer dan ona edo txarra gizartearentzat beraiek jarritako legeekin neurtzen dute.

Etikarekin, ondasunera, egia edo iakintasunaren balio abstraktoetara iristen gara eta gure jarduera ez dago iñoren interesetatik gidatua.

Gizarte garatu bat, askoz armoniko eta poztazun handiagokoa izango da, naturarekin lotura eztu bat daukanean, etika bat duenean.

g) Gizartea

Gauden garaian, hainbeste teoria eta doktrina artean, giza semeak, bere idea eta nahien bitartez bizi eta pentsatu behar du. Bizi behar dute elkarrekin bai, baina bakoitzaren nortasunaz, taldearekin bat egin gabe.

Taldeakide egiterakoan, berekoa bihurtzen da eta beste guztiak berekoi bihurtzea nahi ditu ere indarkeriaz.

Gizarteek ez dute gorputz propiorik, bere gizasemeen nortasunek ematen dioten ezaugarriak baizik eta hori da estatu libre eta totalitarioen (estatu gorputz duna da) arteko ezberdintasuna.

h) Oreka

Argi dago oraingo gizarte modernoak ez duela benetako oinarriak, ez du ulertu lehengo, oraingo eta etorkizuneko denborak lotuak daudela eta horiek eman diguten ondare genetikoa ezin dugula ahaztu. Gizarteak ez dira berdinak eta bakoitzaren ezaugarriak gorde behar dira. Eta ez da arrazakeria hala egitea, berdintasuna ez dan moduan denak gauza berdintsuak egitera behartzea.

Taldeak dira gizarteak manipulatu nahi dutenak, urrerik ez duten taldeak, bere politika eta erlijioarekin agintera iritsi nahi dutenak.

Baina alperrik, aniztasuna eta aldaketa egunerokotasunean barneratua dugulako eta horrek porrotera eramaten ditu. Gizarte konkistatzaileak herri askoren iragana desagerrarazi dute eta berrikuntzez bete, erlijio edo ikur baten aitzakian. Halere, bizitzak jarrai eta gizaseme zintzoak loturari heldu eta natural indarrez bide zuzenerantz abiatu askotan.

Eta oreka beharrezkoa da, gizartea eta bizitza elkarrekin, etika batekin.

Oposaketak orekatzea izan behar da giza semearen lana, pentsamendua eta hitza, kontziente eta adimena, izpiritua eta materiala, barnekoa eta kanpokoak, poza eta negarra, bakoitzaren betebeharrak eta bestearentzakoak.

Memoria biologikoa denona da, kontzientea bakoitzarena.

i) Zenbait proposamen etimologiko

IZENA: argitik edo energiatik (IZ) datorrena, IZ-ENA, ARGIARENA, ENERGIARENA. Naturaren indar magnetikoak ahoskatzeko gaitasuna. Gizaki bakoitza argiaren izpi moduko bat garelako.

HEGOA: txorien hegoak: E (emeki), GO (goian)

IZAR: argiaren indarra: IZ (argia), AR (indarra)

ZIDAR: argi materializatuaren indarra: ZI (argi materializatua; hau IZren aurkakoa da, IZ harratututa ez dagoen edo katalizatu ez den argia delako) eta AR (indarra)

INDAR: egiteko indarra: IN (egin) eta AR (indarra)

ZAR: aitalehena, patriarka: ZA (nerbioen energia, nerbioek katalizatutako energia) eta AR (indarra). Hau da, pertsona jakintsua, bere energia kontrolatzeko eta bideratzeko gai zena. Euskeraz ZAR ez da "zaharra", hori XAR izan idatzi beharko litzateke (xe, inar gutxikoa)